

XIPRI ARBELBIDE.—*Piarres Lafitte*. Elkar. Donostia-Baiona, 1986.

«Orhi» Literatura sailean eman du Elkarrek liburu hau, Lafitte zenaren bizia aztertzen duena. Lanaren oinarri: hiru ordu t'erdiz Mixel Oronos baigorriarrak egin zion magneto-nozko grabaketa *Herria* astekaria sortzez, lehen urtetako nekeak eta ondoko eragozpenak tartekatuz. Hor, N... kalonje delakoa nor den argi jarri balu, ez zen gaizki izanen. Aurpegiak ere agertu beharrezkoak dira.

Bestalde, Jokin Apalategik zuzenean grabatu zion ordu t'erdiko zinta, Luzien Etchezaharretakin izan zuen elkarrizketa eta Xabier Diharce Iratzederrek idatzitako artikulua ditu oinarri, aintzin solasean egileak aitortzen duenez. «Iker» soil soilik aipatzeaz, uste dugu, Euskaltzaindiak P. Lafitteren omenez argitaratu zuen liburua izanen dela, *Iker* -2, 1983an argitaratua; zeren 87-95. orrialdeetan berargitaratzen bai du han eman zen bibliografia.

Horrez gainera, egilea mintzatu zen Lafitte hurbildik eza-gutu zuten zenbaitzuekin: Dubosq eta Haira uztariztarrak, Mestellan lehunztarra, Légasse, Xarriton, Etxamendi, Larzabal..., Eugène (ikus 5. orr. azken lerroaren bukaeran eta 6. orr. hasera loturarik gabea) delakoa ordea ez da izanen Lafitte bera, hor datorrenez. Bada hor inprimategiko jauziren bat, gure inprimategi hauek zein gaizki lan egiten dutenaren agiritzat. Euskarazko liburuetan ez ezik, erdaraz egiten direnatan ere hori nabari da. Hasi ta beste gabe 5. orrialdean hori ikusteaz beldurtu ere egin ginen ondoko orrialdeak zehar holako huts egiteak izango zirelata; baina, tira, nahiko ondo zaindua dela esan behar, gaizki ohituak gaituztenaren barnean; han-hemenka ohizko huts tipi horiek gora-behera, orokorki begiraturik aski ongi dago.

Lafitteren aitaren sortzeaz trunpatzen da egilea, 7. orr. Baigorriko Buzkingorrian sortua (ez zortua) jartzen du eta

ondoko orrialdean Buztinaga. Baina ama Uruñako Buztingorrikoa. Hortik ohar daitake huts egitea.

Liburuak duen ederrena, Lafittek bere buruarekiko borrokak nola gainditu zituen adieraztea, haurtzarotik hasi eta «apaiz gorri» izatera arte, euskaldun berritik igaroaz. Liburutegia osatzezkoa oso bitxia da. *Aintzina* (lehen aldikoa) aldizkaria eta Menditarrak elkarte bere gaztaroko ekintzetarik interesgarrienak ditu ondoko urteetakoak markatuko zizkionez; era berean Tolosaldean apaizgoaren hastapenetan jende mixerable haren inguruan eman zituen urteak. Horiek moldatu zuten gizona: euskaltzale, abertzale, gizarte auzietan behartsuaren alde eta bereziki jerarkiaren gehiegizkoen salatzaile eta kritiko. Baina, gainera, ibiliak erakutsi zion lana ahalik maltzurren bideratzen, beti helburueri begira eta zintzo jokatzuz. Maltzurkeri ona eta garbia erabili zuen beti boteretsuean aurrez-aurre. Denen gainetik Ebangelioko Kristo zerbituz.

Ezagutzekoak dira bere arartekotasunak ere, Espainiako gerra zibila baino lehen hasita gerra guztiaren zehar. Ez zuen lan erraza hango eta hemengo eskuindar eta abertzaleen artean ararteko lana egin beharra. Gero, horren jarraipenez, 1939ko gerratean erakutsi zuen bere jarrera.

Liburu atsegina da. Gustora irakurtzekoa. Anekdotaz beterik dator, Lafitte ezagutzen genuenok bagenekien haren eztenkadazko umorea zer zen. Xipri Arbelbideren idazkera argi eta biziak ondo laguntzen du haren izakera adierazten. Hala ere, liburu honetan, Piarres Lafitte zenaren ideologia eta aldizkarigintza eta horien inguruan izan zituen jarrerak nabarmentzen dira, baina ez Lafitte ikertzailea. Hizkuntza irakaslea, gramatika eta hiztegiaren egilea baino zerbait gehiago zen Lafitte ikerketaren munduan. Ez bait da ageri hori bedori tokatzen zitzaion neurrian, eta horrez gainera testu zaharren aurkitzaile eta argitaratzeila, zenbait autore zahar eta horien testuak ezagutarazteak, bio-bibliografiaz, euskara

eta euskal literaturari dagokionez. Era berean, etnografia lanak ikerketa mailan, aintzinako historiaz. Askotan, zer-nahi ikertzeko eskaintzen dituen iturriak heurak beste gabe erakusten digute egin zuen lan gaitza ikerketa kontuan, dena bururatu ezinik adibideak eskaintzeaz. Baina, liburu honi ezer kentzeke, behar bada, beste alderdi hori erakutsiko duen bigarren liburu bat eskatzen du biografiatuaren gizontasunez bere dimenzio osoz jabetzeko. Hara hor beste iker lan bat. Eta, hartarako ere lagunduko du liburu honek. Horrenbeste merezi du euskal letretan eman den gizonik garrantzitsuenetakoa den aldetik.

Liburuak, azalean, José Ignacio Trekuk Lafitteri egin dion potreta dakar, argiz, jestoz eta egituraz itxura onean burutua.

*J. S. M.*

